

EROSKI-K 120.000 MASKARA EMAN DIZKIO BARAKALDOKO UDALARI

Barakaldo, 2021eko otsailaren 8a.- **EROSKI**k Barakaldoko udalari emandako 120.000 maskarak kolektiborik zaurgarrientzat joango dira. Horiek ari dira gehien sufritzen COVID-19ak eragindako krisi honetan, eta osasun aldetik babestuko dituzten materialen beharrea dira, kutsadurak saihestea funtsezkoa baita. Guztira, 1.000.000 maskara emango ditu dohaintzan gehien behar duten 10.000 familiarentzat baino gehiagorentzat, eta 70 bat erakunde publiko eta gizarte erakunderen bitartez banatuko dituzte. EROSKI horrelako ekimenak gauzatzen ari da pandemia hasi zenetik; esaterako 6,5 milioi otordu eman zizkien Elikagaien Bankuei eta martxotik %80 jaitsi du maskararen prezioa.

EROSKI Max Centerren duen hipermerkatuan izan da dohaintza, bertan izan direlarik Barakaldoko alkate Amaia del Campo eta EROSKIren Harreman Instituzionaletako zuzendari Josean Yela.

"Oso eskerturik gaude EROSKIren elkartasun erakustaldi honegatik. Dohaintza hau laguntza handikoa izango da guk ematen ditugun zerbitzuetan eta lantzen ditugun proiektuetan, zailtasun gehien dituztenengana iristen saiatzeko", esan du Barakaldoko alkateak, Amaia del Campok.

"EROSKI eta proiektuaren parte garenok konturatzen gara zinez nola ari den eragiten krisi hau herritarren egunerokoan. Pandemia hasi zenetik ekinbideak jarri ditugu martxan bidea errazteko egoera zaurgarrian diren familia eta pertsona horiei", esan du EROSKIren Harreman Instituzionaletako zuzendariak, Josean Yelak.

Maskara horiek banatuko dituzte honako hauen artean: gizarte-hezkuntzaren arloko esku-hartze taldeak, Barakaldoko elikagaien banaketarako taldeak (Nuestra Señora del Carmen eta Hay una Esperanza Para Ti), Aunar Elkartea —Elkartasun Taperraren zerbitzua ematen duen erakundea—, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen erabiltzaileak, harrera zentroak eta gizarte bazterketan daudenentzako eguneko arretarako zentroak, zeinak Barakaldoko Udalak kudeatzen batitu Goiztirirekin, Caritasen jantoki sozialarekin eta Caritasen eta Save The Childrenen Haur eta Familia programarekin batera.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[**Online prentsa aretoa**](#)